



“Egin KOXK elkartasunari”

“ Dale un mordisco a la solidaridad ”

2014ko IRAILAK 13
INTXAURRONDON

13 Septiembre de 2014
en Intxaurrondo

ms
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA


proyecto
SABORES

KOXK

(EGIN KOXK ELKARTASUNARI)

Zer da Koxk?

Koxk elkartasuna eta sukaldaritza uztartzen dituen ekintza bat da. Euskararen alde, Ikastolen Elkartek antolatzen dituen ekintzak (Kilometroak, Ibilaldia...) eredu hartuta, ibilbide bat antolatuko da Donostiako Intxaurrondo auzoan. Bertan, lau gune kokatuko dira, ekintza gastronomikoak burutzeko asmoarekin.

Zein da helburua?

Koxkek honako helburu hau du: Zaporeak Proiekturako dirua bildu eta babesa lortzea.

Zer da Zaporeak Proiektua?

Zaporeak Proiektuak Etiopiako Wukro herriko eta, orohar, Tigray eskualdeko elikatzeko segurtasun eza kronikoari buelta ematea bilatzen du. Horretarako epe-luzeko kudeaketa sostengarria burutako da, Saint Mary eskolaren kudeaketa bermatuz eta inguruneko elikagai industria bultzatuz.

OINARRIZKO DATUAK

Noiz:

2014ko irailak 13

Non:

Intxaurrondon

Ibilbidea:

Irteera puntua Zubiaurreko zubian egongo da. Hortik zuzen jarraituko dugu Zubiaurre pasealekuan barna, Villa Yeyettera iritsi bitarte. Bertan aurkituko dugu Pedro Arregi gunea. Bertatik, Zubiaurre pasealekuan jarraituz, Garro zubiraino iritsi eta Justo Elizaran parkera jaitsiko gara. Behin parkean, Parada kaletik sartu eta Parada plazara iritsiko gara. Bertan egongo da Juan Mari Arzak gunea. Gune honetatik, Mirakruz aldapa jaitsita, Intxaurrondo kalera iritsiko gara. Bertan, Larrotxene Kultur Etxearen pareko parkinean, Gilda gunea aurkituko dugu. Ibilbideak Intxaurrondo kaletik jarraituko du, Zulo Zahar elkartera iritsi arte, jarraian Txaparrene pasealekuan barrena irteera punturaino iritsi arte. Bertan dago kokatua gune garrantzitsuena, Luis Irizar gunea.

GUNEAK

Gune garrantzitsuena Txaparrene parkean (LUIS IRIZAR GUNEA):

Hau izango genuke festaren erdigunea, ibilbidearen irteera eta amaiera puntua batzen dituen. Bertan ospatuko litzateke inaugurazio ekitaldi ofiziala, zinta-moztea eta ibilbidearen irekiera. Horretarako, bertako agintari, euskal sukaldari garrantzitsu eta antolakuntzako kideen presentzia izango dugu.

Gune honetan ospatuko dira hainbat lehiaketa eta baita bi omenaldi: euskal sukaldari garrantzitsuenen maisu den Luis Irizarri bere ibilbide eta lanagatik, eta Arzak jatetxeari, 25. Urteurrena baitu 2014^a hiru Michelin Izarrekin. Behin omenaldiak amaituta herri bazkaria ospatuko da Koxki amaiera borobila emateko.

Ekintzak:

Orduetgia	1. Gunea: Luis Irizar
10.00	Inaugurazio ofiziala eta ibilbidearen irekiera
10.30	Gazta lehiaketa + umeek gazta egitea
11.00	
11.30	Urdaiazpiko mozketaren klasea
12.00	
12.30	Garagardo zerbitzarien Keler lehiaketa
13.00	
13.30	Patata-tortila herri-lehiaketa
14.00	Lehiaketa guztien sari-banaketa
14.30	Luis Irizar eta Arzaki omenaldia
15.00	Bazkaria
16.30	
19.00	Trikipoteoa auzoan zehar
20.00	
23.00	

2.- gunea VILLA YEYETE (PEDRO ARREGI GUNEA):

Gune hau euskal sukaldaritza tradizionalari egongo da eskainia, hainbat erakustaldi eta dastaketekin. Horietan, betiko euskal sukaldaritzan erreferentzia diren sukaldariek parte hartuko dute, hala nola, Euskal Herriko eta Nazio mailako parrila txapeldunak. Sukaldari bakoitzak, bere ikur den, eta euskal errezetategian ezinbestekoa den errezeta bat prestatuko du.

Horrekin batera, elkarte gastronomikoen lehiaketa ospatuko da, bertan, elkarte gastronomiko bakoitzak menú bat prestatu beharko du euskal sukaldaritzaren ikur diren produktuekin. Gainera, Villa Yeyeteko instalakuntzak ezagutzeko parada izango du jendeak.

Pedro Arregi omenduko da, getariako Elkano Jatetxea martxan jarri zuen gizona, eta parrila mundo osoan zabaldu duena.

Ekintzak:

Ordutegia	2. gunea: Pedro Arregui
10.00	Elkarte gastronomikoen lehiaketaren hasiera
10.30	Fronton/Roxario Babarrunak eta bakailao-tortila
11.00	Sagardo dastaketa Sagardoaren Lurraldearekin
11.30	Kattalin/Txuleta Txuletak parrilan
12.00	
12.30	Aratz/Illarra Parrilarekin jolasean
13.00	Pedro Arregiri omenaldia
13.30	Elkano Erreboila, itsasoko errege
14.00	Elkarte gastronomikoen lehiaketako amaiera
14.30	
15.00	
16.30	
19.00	Trikipoteoa auzoan zehar
20.00	
23.00	

3.- gunea PLAZOLETA PARADA (JUAN MARI ARZAK GUNEA).

Arzak Jatetxe parean kokatua, gune honek euskal sukaldaritza berria izango du oinarri. Gaur egun Michel Izarren bate do beste duten euskal sukaldarien parte-hartzea izango du ardatz nagusi.

Baina ekintzarik garrantzitsuenetako bat, gaur egun telebista Saioa duten bi euskal sukaldarien arteko "lehia" izango da, Karlos Argiñano eta David de Jorge. Bertan, sukaldari bakoitzak menú bat prestatu eta publikoak erabakiko du zein den onena.

Egitaraia osatzeko Getaria Txakolinaren dastaketa bat eta lore-zentroen ikastarotxo bat, Mimikuk emana, ospatuko dira gune horretan.

Ekintzak:

Ordutegia	3. gunea: Juan Mari Arzak
10.00	Ruben Trincado eta Eneko Atxa
10.30	Txakolin dastaketa Getaria Txakolinaren eskutik
11.00	Hilario eta Jose Mari Arbelaiz
11.30	Karlos Argiñano vs David de Jorge Euskal Mastertxefa
12.00	Juan Mari Arzak
12.30	Mimikurekin lore-zentroak egiten
13.00	Pedro Subijana eta Martin Berasategui
13.30	
14.00	Andoni Luis Aduriz eta Dani Lopez
14.30	
15.00	
16.30	
19.00	
20.00	
23.00	

4.- gunea INTXAURRONDO ZAHARRA (GILDA GUNEA).

Azken gune honetan bi izango ziren ekintza nagusiak: Pintxoaren Tunela eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek, Zaporeak Proiektuaren baitan egindako lanen erakusketa. Pintxoaren Tunelean, publikoak aukeratuko du norka irabazten duen Zaporeak Lehen Saria.

Tunelarekin batera, parte-hartzen duten tabernek lehiaketara aurkeztutako pintxoaren erakustaldia egingo dute.

Aperitivos Easo omenduko da gune honetan. Hainbat ostalari garrantzitsuk osatutako talde honek lan handia egin zuen pintxoaren alde, miniaturazko sukaldaritzaren menuak antolatzen aitzindari izan ziren.

Arratsalde-iluntzean, Intxaurreko Zaharreko jaien baitan antolatutako hainbat ekintza ospatuko dira.

Ekintzak:

Ordutegia	4. gunea: Gilda
10.00	Pintxoaren Tunelaren irekiera
10.30	Aperitivos Easori omenaldia
11.00	Bokado
11.30	Gran Sol/Cantabrico
12.00	
12.30	Zeruko/Bergara + pintxoaren haurrentzako ikastaroa
13.00	Gaztelumendi/Danako
13.30	MarmitaCo/Ábaco
14.00	Ganbara/Txepetxa
14.30	
15.00	
16.30	Herri Kirolak
19.00	Trikipoteoa auzoan zehar
20.00	Herri afaria
23.00	Berbena

Gune guztietan: produktuen dastaketa eta salmenta postuak izango dira, baita tabernak ere.